

**2010EKO APIRILAREN 27AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hogeita zazpia

**HILABETEA:** Apirila

**URTEA:** Bi mila eta hamar

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko zortziak eta erdi.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe  
Jon Kortaberria Lasa  
Begoña Lasa Royuela  
Julio Herreros Serna

**ETORRI GABEAK:** Fernando Boada González

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2010eko apirilaren 12ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- OBRAK ESLEITZEA. Euskaltegi eta EPAko obrak esleitzea.**

Ezagutzera eman da, 2010eko apirilaren 26ko Kontratazio-Mahaiaren proposamena:

**“AURREKARIAK**

**I.-** 2010eko otsailaren 26ko Gobernu Batzordeak, proiektu honetatik ondorioztatzen diren obrak kontratatzeko deialdia egitea erabaki zuen: irakaskuntza guneak egokitzea: udal euskaltegia eta HHlrako gelak (helduen hezkuntza iraunkorra) (E Plana). Horretarako baldintza administratiboa onartu zen. Proiektua, 2010eko otsailaren 1ean Gobernu Batzordeak egindako bileran onartu zuen

**II.-** Deialdia, 2010eko martxoaren 24an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 13 egunetan jarraian aipatzen diren enpresak aurkeztu ziren.

2. Kartazala 2010eko apirilaren 14an publikoki ireki zen eta teknikoek emandako txostenaren arabera, adjudikazio-irizpideekiko (obraren azterketa: 30 puntu eta obrari atxikitako pertsonala eta asistentzia teknikoak: 10 puntu) Kontratazio-Mahaiak jarraian aipatzen den puntuazioa ematea erabaki zuen:

2010eko apirilaren 23ko Kontratazio-Mahaiak proposamena egun zuen lizitatzaleei puntuazioa emanez, 2. kartazaleko dokumentazioari buruz, hain zuzen ere, adjudikazio-irizpide hauei buruz: obraren azterketa eta berari atxikitako pertsonala eta asistentzia teknikoak. Egun horretan bertan proposamen ekonomikoen kartazala ireki zen eta emaitza ondorengo izan zen:

OBRAS DE HABILITACION DE AULAS EPA - EUSKALTEGI										
DATOS DE LA LICITACION		OFERTANTES PRESENTADOS	VALORACION SOBRE Nº 3				PUNTUACIONES			
			OFERTAS PRESENTADAS				OFERTA ECONOMICA (60P)			
Importe Total IVA inc.	Plazo (semanas)	CONTRATISTA	Ejecución Contrata	IVA	Total oferta	Plazo	Diferencia con la Media	Porcentaje con la media de la diferencia	Límites Baja	PUNTUACION
CNES ARALAN	422.822,03	67.651,52	490.473,55	15	49.879,12	11,321%	Correcto	17,48		
CNES ARTZAMENDI SA	357.924,17	57.267,87	415.192,04	*****	25.402,40	5,765%	Correcto	39,71		
CNES ECHAIDE SL	373.688,75	59.790,20	433.478,95	13	7.115,48	1,615%	Correcto	56,31		
CNES GOITU ERAIKUNTZAK	368.267,96	58.922,87	427.190,83	12	13.403,60	3,042%	Correcto	50,60		
CNES ITURRIOZ	382.699,23	61.231,88	443.931,11	15	3.336,67	0,757%	Correcto	59,74		
CNES OLABARRI	406.443,40	65.030,94	471.474,34	15	30.879,91	7,009%	Correcto	34,73		
CNES OLARTZA SL	412.253,74	65.960,60	478.214,34	13	37.619,90	8,538%	Correcto	28,61		
CNES ORALUR SL	384.406,83	61.505,09	445.911,92	15	5.317,49	1,207%	Correcto	57,94		
EFORMAS Y CONTRATAS DE GUIPUZUA	377.194,28	60.351,08	437.545,36	15	3.049,07	0,692%	Correcto	60,00		
CNES TRATI SL	360.501,37	57.680,22	418.181,59	13	22.412,85	5,087%	Correcto	42,42		
		MEDIA PROPUESTAS			440.594,43	13,50				
		BAJA MEDIA			14,66%					
		<b>BAJA OFERTA A ADJUDICAR</b>								<b>14,01</b>

Adjudikazio-irizpide guztien batuketa egin ondoren, aurketutako enpresak lortutako puntuazioa honako hau izan da:

OBRAS DE HABILITACION DE AULAS EPA - EUSKALTEGI								
DATOS DE LA LICITACION		OFERTANTES PRESENTADOS	VALORACION PUNTUACIONES			VALORACION PUNTUACIONES		
			Estudio Obra y PERSONAL (40P)			OFERTA ECONOMICA (60P)	Estudio plazo	TOTAL VALORACION
Importe Total IVA inc.	Plazo (semanas)	CONTRATISTA	ESTUDIO OBRA	PERSONAL	TOTAL SOBRE 2	PUNTUACION	PLAZO	
516.288,17	15 SEMANAS	CNES ANTIA SL	21,75	2	23,75	12,25		36,00
		CNES ARALAN	0,25	0,75	1	17,48		18,48
		CNES ARTZAMENDI SA	7	7,325	14,325	39,71		54,03
		CNES ECHAIDE SL	0,5	0	0,5	56,31		56,81
		CNES GOITU ERAIKUNTZAK	15	3,25	18,25	50,60		68,85
		CNES ITURRIOZ	23,75	9,26	33,01	59,74		92,75
		CNES OLABARRI	16,5	8,48	24,98	34,73		59,71
		CNES OLARTZA SL	3	1,5	4,5	28,61		33,11
		CNES ORALUR SL	3,5	0,25	3,75	57,94		61,69
		EFORMAS Y CONTRATAS DE GUIPUZ	9,625	8,39	18,015	60,00		78,02
		CNES TRATI SL	15,38	8,6	23,975	42,42		66,40
		MEDIA PROPUESTAS						
		BAJA MEDIA						
		<b>BAJA OFERTA A ADJUDICAR</b>						

Horren ondorioz, Kontratazio-Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Irakaskuntza guneak egokitzea: udal euskaltegia eta HHIrak gelak (helduen hezkuntza iraunkorra) burutzeko obrak CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.ri behin-behinik esleitzea, 443.931,11 €ko prezioan (BEZ barne). Egikaritze epea, 15 astekoa izango da, zuinketa akta sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hau kontratua formalizatzen denetik 15 eguneko epean egin beharko da.

**Bigarren.** Kontratatzailearen profilean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 laneguneko epean, adjudikaziodunak 22.196,56 €ko behin betiko fidantza aurkeztuko du. Gainera, zerga eta

gizarte segurantzako betebeharretan eguneratuta egotea kreditatu egin beharko du.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

### **3.- ESKAERA ETA GALDERAK.**

Eskaera eta galderan atalean, ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.